

# Master Amaierako Lanak

Master Amaierako Lanaren (MAL) helburua da masterrean eskuratutako ezagutzak aplikatzeko gaitasuna erakustea. Horregatik, masterrean landutako metodologiak erabili beharko dira nahitaez MALean. Lanak ikuspegi teorikoa edo praktikoa izan dezake, baina beti teknika horien inguruan. Lan-kargari dagokionez, 18 ECTSkoa da, hau da, 450 lanordu ingurukoa.

## Zuzendaritza

MAL guztiek UPV/EHUko zuzendari bat izango dute gutxienez. Zentro teknologiko edo enpresa batean lan eginez gero, enpresan zuzendari edo tutore bat ere egongo da.

## Memoria

Memoria da MALaren emaitza nagusia. Dokumentuak argi eta garbi jaso behar du egindako lana. PDF fitxategi bat izan behar du, baina ez dago nahitaez erabili beharreko formatu zehatzik. Orri honen amaieran, dokumentuaren azala sortzeko [txantilo](#) bat aurki daiteke. Era berean, eta erabiltzea errigorrezkoa ez bada ere, dokumentua idazteko erabil daitekeen [txantilo](#) bat dago Overleafen.

Ez dago nahitaezko egiturarik memoriarako. Laguntza gisa, komenigarria da atal hauek sartzea (lanaren arabera alda daiteke):

- Azala
- Laburpena (orri bat gehienez)
- Gako-hitzak
- Aurkibidea
- Sarrera
- Helburuak
- Metodologia
- Garapena
- Aplikazioa
- Ondorioak
- Bibliografia
- Eranskinak

## Ebaluazioa

MALen ebaluazioa **aurrez aurreko defentsa-ekitaldi** batean egingo da, jendaurreko saioan, eta gaia epaimahai bati aurkeztu beharko zaio. Ondoren, epaimahaikideek egokitzat jotzen dituzten galderak egingo dituzte aurkeztutako lanaren kalitate teknikoa eta zientifikoa ebaluatu ahal izateko, memoriaren kalitatea, aurkezpena eta emaitzak baloratuz. Gutxi gorabeherako **iraupena 30 minutuko azalpenekoa eta 30 minutuko galderakoa** da.

## Master Amaierako Lanen Kudeaketa

MALak GAUR aplikazioaren bidez kudeatzen dira, bai eskaintzari eta aukeraketari begira, bai defentsa eskatzeko prozedurari begira.

Proiektua aukeratzea

MALaren matrikula egin ondoren, GAUR webgunean kontsulta daitezke eskaintzen diren proiektuak. Aplikazio horretan proiektu bakoitzari buruzko informazioa aurki daiteke, baita lana eskaintzen duenaren harremanetarako informazioa ere.

Proiektu bat aukeratzeko, komeni da matrikulazioan esleitutako tutorearekin hitz egitea, orientazioa jasotzeko eta formalizatzeko prozedura ezagutzeko.

Eskaintzen ez den proiektu bat gara daiteke, baldin eta Masterreko irakasleren batekin, edo enpresa edo zentro teknologikoren batekin, adosten bada. Kasu horretan, Masterraren arduradunari jakinarazi behar zaio, proiektua GAUR aplikazioan sar dezan.

MALaren defentsa

Proiektua GAUR programan esleitu ondoren, defentsa-prozedura honako hau da:

- **Ikasleak** proiektuaren **defentsa eskatu behar du GAUR bidez**. Komenigarria da eskaera egin aurretik tutoreekin komentatzea, lana defendatzeko moduan dagoen jakiteko. Defentsa eskatzerakoan, deialdia eta hizkuntza aukeratu behar dira. Hizkuntza defentsarena izango da. Defentsa euskaraz edo gaztelaniaz bada, memoria ingelesez egon daiteke. Hala ere, defentsa ingelesez egiteko, memoriak ingelesez ere idatzita egon behar du.
- **Zuzendariak** (UPV/EHUkoak) **oniritzia eman behar diote defentsari**, GAUR bidez. Horretarako, epaimahaiaren osaera zehazten duen dokumentu bat igo behar da (txantiloia atalaren amaieran dago). Gogoratu behar da epaimahaiko kide guztiek doktoreak izan behar dutela, eta gutxienez bik Informatika Fakultatekoak izan behar dutela. Ebaluazio-txostenik ez dagoenez, zuzendari batek (eta bakar batek) epaimahaiko kide izan behar du
- **Defentsaren** eguna, ordua eta lekua jakinaraziko dizkiote **zuzendariak** masterreko arduradunari, gutxienez **bi aste lehenago**.
- **Ikasleak memoria ADDI biltegira igo behar du**. Horretarako, esteka bat jasoko du posta elektronikoaren bidez. Memoria igotzerakoan, argitaratzeko baimena eta baldintzak ere igo behar dira. Dokumentuaren txantiloia atal honen amaieran dago.
- **Epaimahaiko idazkariak** defentsaren akta prestatu behar du. Txantiloia atal honen amaieran dago
- **Epaimahaiko idazkariak** akta kalifikatua eta sinatua bidaliko dio masterraren idazkariari (oihana.imaz@ehu.eus).